

Foru Aldundiak uda aurretik hasiko ditu Bernedo parean A-126 errepidea hobetzeko obrak

729.511 euro inbertituko ditu 1,5 kilometroko tarte batean galtzada zabaltzeko

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 4a.- Arabako Foru Aldundiak 729.511 euro inbertituko ditu A-126 errepidea hobetzeko Bernedoko herrigunearen eta A-3136 errepidearekiko bidegurutzearen artean. Esku hartze hori 1,5 kilometro inguruko tarte batean egingo da, eta Arabako Mendialdeko herri honen industrialderako sarbideak segurtasun irizpideekin berrituko dira. Obrak uda aurretik hasiko dira.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur esleitu dio proiektu hori Ismael Andrés SA enpresari, 729.511 euroko zenbatekoan eta gauzatzeko 5 hilabeteko epearekin. Obrak maiatzaren amaieran edo ekainaren hasieran hasiko dira, eta, beraz, egokitutako tarte berria udazken honetarako amaituko da.

Inbertsio horri esker, galtzada zabalduko da gaur egun 5 metro zabal eta bazterbiderik ez duen tarte batean. Izan ere, gaur egun arreta handiz ibili behar da bi ibilgailu, batez ere astunak badira, tarte horretan gurutzatzen direnean. Plataformak 6 metro zabal gehi 2 metroko bazterbideak izango ditu (errei bakoitzak 3 metro + metro 1eko bazterbidea), eta esku hartze horren ondorioz segurtasuna hobetuko da. Proiektuaren abiadura orduko 60 kilometrokoa da.

Jarduketa horiek osatzeko A-126 eta A-2126 errepideen arteko bidegurutzeari berrantolatu eta hobetuko da, A-2126 errepidearen hasierako trazadura egokituz A-126 errepidearekiko bidegurutzearen definizioa hobetzeko (biraketa erradioak handituko dira eta A-2126ren plataforma handituko da; azken horrek ere 3 metroko bi errei izango ditu).

Azkenik, errepiderako sarbideak berrantolatzea aurreikusten da, segurtasuna hobetzeko.

Arabako Foru Aldundia Arabako bide sarea hobetu eta modernizatzeko lanean ari da, lehentasun gisa bide segurtasuna duela. Plangintza baten bidez, proiektu handiak (Legution N-240 errepidea egokitzeko bukatu berri diren lanak edo A-625 errepidean abian direnak, esate baterako) eta txikiagoak izan arren beharrezkoak diren proiektuak uztartzen ditu (A-126 errepidea egokitzea Bernedon, Egiletako bidegurutzeari handitzea eta Moreda Arabako zeharbidea hobetzea, kasu).

Gainera, jarduera horiek, inbertsio publikoaren bidez, egungo egoeran ekonomiari eta enpleguari eusten laguntzen dute.

Foru Aldundiak 135.000 euro bideratuko ditu garapen bidean dauden herrialdeetako Larrialdietarako Arabako Funtsera

Larrialdietarako Arabako Funtsari (LAF) jarraipena emateko Gasteizko Udalarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmen berriari esker, 11 esku hartzetarako laguntza eman zen iaz

Gaur, Foru Gobernu Kontseiluak onespena eman dio Gasteizko Udalarekin egindako lankidetzaren hitzarmen berriari, Larrialdietarako Arabako Funtsari (LAF) jarraipena emateko. Funts hori 2005ean eratu zen, garapen bidean dauden herrialdeetako herriei larrialdi egoeretan laguntzeko.

Aurten egingo diren esku hartzeetarako, LAFek guztira 135.000 euro erabiliko ditu, 2020an baino 11.000 euro gehiago.

LAFek, 2005ean sortu zenetik, guztira 3,5 milioi euroko ekarpena egin du, eta horri esker, 96 esku hartzetarako laguntza eman ahal izan da 36 herrialdetan, gertatzen diren larrialdi jakinetan esku hartzeko gaitasun egiaztatua duten erakunde bidez.

Larrialdi egoeratzat hartzen da biztanle multzo baten egoeraren aldaketa gogorra, hilkortasuna handitzeko arriskua dakarrena, hondamendi naturalek, gerrak, goseak nahiz bestelako faktoreek sortua delarik.

Bai Foru Aldundiak bai Gasteizko Udalak oso positibotzat jo dituzte Larrialdietarako Arabako Funtsaren esku hartzeak, Funtsaren mekanismoak larrialdiei ematen dien erantzunaren arintasuna eta erakunde arteko koordinazio arina.